

797/2025 EBAZPENA, martxoaren 18koa, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESIko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESIko Kirurgia Orokorra eta Aparatu Digestiboko (Kirurgia Hepatiko eta Trasplante Hepatiko Atala) Atal Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den.

AURREKARIAK:

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESIko zuzendari gerentearen abenduaren 24ko 2999/2024 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESIko Kirurgia Orokorra eta Aparatu digestiboko (Kirurgia Hepatiko eta Trasplante Hepatiko Atala) Atal Sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2025eko otsailaren 17ko EHAA 32 zk. eta 2025eko otsailaren 24ko BOE 47 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2025eko martxoaren 17an amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK:

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESIko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetza ESIko Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219 zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESIko Kirurgia Orokorra eta Aparatu digestiboko (Kirurgia Hepatiko eta Trasplante Hepatiko Atala) Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina).

Bigarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESIko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Barakaldo, 2025eko martxoaren 18a



EZKERRALDE-ENKARTERRI-CRUCES ESI
ZUZENDARITZA GERENTZIA
Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako zuzendaritza gerentzia,
GERENTZIA
María Luz Marques González

ERANSKINA

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESI

KIRURGIA OROKORRA ETA APARATU DIGESTIBOKO (KIRURGIA HEPATIKO
ETA TRASPLANTE HEPATIKO ATALA) ATAL SANITARIOKO BURUA

BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK

Onartuak:

D. Mikel Gastaca Mateo jn.

Baztertuak:

Inor ez